




Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
182.zkia . 2006ko urtarrila



**PUTZU BERRI BAT
ALDE ZAHARREAN**

4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarriketa: Pilota Eskola

16-17. Saindua Gaztelekua

22-23. Bordari eta Satarka

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Abenduko demografia

| JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



gizarte ekintza
obra social



 **Aliprox**
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea • Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

LITERATUR LEHIAKETAREN XEDEA



Euskara Azpibatzerdeak (garai hartan azpibatzerdea baitzen), euskaraz idazteko zaletasuna bultzatu eta idazle berriei lagundu nahian literatur lehiaketa bat antolatzea erabaki zuen 1984. urtean. Ordutik 22 urte igaro dira eta lehiaketak bere bidean aurrera egin du.

Gaur egungo multimedia, bideo eta telebistak aisialdirako eskaintzen dituzten aukerak kontuan hartuta, euskaraz idazteko gaitasuna eta zaletasuna bultzatzea beharrezkotzat jotzen duelako jarraitzen du Euskara Batzordeak lehiaketa honekin, eta berak antolatzen duen ekintzarik garrantzitsuenetako bat izanik, jardueretarako duen aurrekontuaren %15 horretarako erabiltzen du.

Lehiaketak bi modalitate lantzen ditu: ipuina eta olerkia, eta horietako bakoitzak herriko idazle ospetsu baten izena darama: BORDARI eta SATARKArena eta modalitate bakoitzean bi maila daude A (18 urtez gorakoena) eta B 18 urtez behe-rakoena..

Hasiera batean, Hondarribian jaio edo bizi zirenentzat mugatua zen lehiaketa hau, baina laster erabat irekia jartzea erabaki zen.

Lehiaketak bere helburua bete duela esan dezakegu, gaur egun hain ezagunak diren zenbait idazlerentzat, bere garaian hemen lortutako sariak lagun-garri izan direla uste baitugu. Horrela aipatu ditza-kegu Jexux Mari Mendizabal, Xabier Mendiguren, Hasier Etxeberria, Fernando Morillo, Carlos Zabala eta beste hainbat .

Idazle gazteak sortu ahala lehiaketako partaidetza aldatuz joan da, baina kopurua gorabehera handirik gabe mantendu da eta maila ere bai. Gaztetxo-en partaidetzari dagokionez herriko ikastetxeek literaturarako zaletasuna bultzatzen egiten duten lana eskergarria da.

Azken urte hauetako sarituen artean aipamen berezia merezi duten zenbait izen badaude, urterik huts egin gabe beren idazlanak -ipuinak nahi olerkiak- aurkeztzen dituztenak, eta beren kalitateaga-tik urtero sariren bat eskuratzen dutenak. Ziur gaude hauek ere laster literatur munduan leku berezia izango dutela.

Epaimahaiko kideak ere aldatuz joan dira, nahiz eta batzuk sorreratik dauden, beste batzuk hala-beharrez utzi behar izan baitute, besteak beste, Jose Antonio Loidi eta Martin Ugaldek.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URTARRILEAN ETA OTSAILEAN

8- IRAOLA San Pedro, 5	.943 641027
15- FIZ Sokoan	.943 644316
22- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
29- ALAMEDA Harresilanda, 9	.943 645798
5- ERAUSKIN San Pedro, 22	.943 641018
12- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso	.943 642191
19- FIZ Sokoan	.943 644316

TXANDAKO OKINDEGIAK URTARRILEAN ETA OTSAILEAN

8- GARMENDIA Portuan	.943 641136
15- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	.943 641212
22- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975
29- GARMENDIA Portuan	.943 641136
5- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	.943 641212
12- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975
19- GARMENDIA Portuan	.943 641136

360.000 euro Psilocybe Elkartearentzat

Udalak 2006 urte honetarako prestatutako aurrekontuetan 360.000 euro gorde dira Amutalden dagoen udal eraikin batentzat, azken hamar urte hauetan Psilocybe musika elkarteak kudeatu duena, hain zuzen.

Orain arte, elkarteak eraikuntzaren erdia erabiltzen zuen, beste erdia Bidasoa Bizirik-en menpe zegoe-larik. Inbertsio honekin ordea, Psilocybek zenbait aldaketa egin ahal izango ditu: 200 pertsonentzako kontzertu areto bat, lokaletan saioak egiten dituzten taldeentzat estudio txiki bat eta grabaketa egiteko beharrezko den materialarekin beste estudio bat.

Aitor Kerejeta alkateordeak esan zuenez, "orain dela urte batzuk Psilocybe Elkarteari Amutaldeko lokalaren erdia laga zitzaien baina eraikuntza honen erdia libre geratuko dela ikusita anbizio handiko plana egiteko momentua dela ikusi dugu".

Obraren proiektua Psilocybeko kide bat, arkitektoa eta era berean musikoa dena, egiten ari da. Proiektua amaitu ostean Udalean aztertu egingo da.



Psilocybe elkarteak eraikin osoa kudeatuko du

Kai Zaharreko proiektua baimenen zain dago



Proiektua Karroarekin gertatuko denaren zain dago

Bentaren inguruan Udalak buruan duen egitasmoaren barruan, momentuz ez dago aldaketa haundirik, baina Udal oposizioak gai honekin Udalak mantendu duen jarrera salatu egin du. Hori dela eta, Jauregi alkateak zenbait puntualizazio egin zituen. "Aurtengo aurrekontuetan ez dugu kopururik aurreikusi Benta Zaharreko proiektu honi lotuta, konpetentzia ez baita gurea. Gogoratu behar da lurrak ez direla gureak, eta etengabeki bilera asko mantentzen ditugu Euskal Herriko zein Espainiako erakunde desberdinekin, gure herriarentzat hain garrantzitsua den inguru honetarako buruan daukagun egitasmoa aurrera atera ahal izateko. Baina gauza jakina da horrelako kontuak oso gel-doak izaten direla, eta gure eskutan ez dagoenez, aurt-en diru kopururik ez prestatzea erabaki dugu, beste proiektu batzuetan inbertitu ahal izateko".

Jauregik aditzera eman zuenez, "Kai Zaharraren proiektua Irungo San Juan Plazan egin berri denaren antzekoa izango da, jendeak bere iritzia eman dezala hiriarentzat onena dena erabakitzeke".

Lur azpiko aparkaleku bat, auditorio bat eta Itsas Etxearen handitzeko baldintzetako bat, lehen ontziak garbitzeko karroa desagertzea ezinbestekoa da. Kofradia Pasaiaiko Portuko erantzuleekin negoziaketetan dabil arazo honi irtenbide bat bilatu asmoz.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

2006ko aurrekontuak %4,22 igo dira



Hiriaren mantenimendua da aurrekontu handiena duen atala

2006ko udal aurrekontuak erabateko gehiengoz onartu ziren urteko azken udal batzarrean. 18 milloi euroko zifraraino ailegatzen da, kredituen aldaketa kontatu gabe, zeren eta 2005ko amaierako aurrekontuak kendu ondoren egingo baita, ziuraski apirilean edo maiatzean.

Aitor Kerejeta alkateordeak azpimarratu zuenez, "joan den urtekoa ikusita udal aurrekontuak %4,22ko gorakada izan du. Gure premietako bat da inbertsioa egiten segitzea banku edo administrazioari dirurik eskatu gabe. Horrela, herriko dimentsioak gaindi-tzen dituen proiektuak egiterakoan, ez dugu inongo zorrik izango".

Aurrekontuaren hiru atal nagusiak hauek dira, gastu arrunta: 7,5 milioi euro, udal langilegoa: 5 milioi euro baino gehiago, eta inbertsioak 5,5 milioi euro. Honi 2005eko aurrekontuen likidazioa gehitu behar zaio. Herriko zerbitzu sozialei garrantzi berezia eman nahi izan zaie era berean. 3,7 milioi euro dira, Kasino Zaharra, KZgunea, Etxez etxeko laguntza, eta behar duten familiei laguntzak ematea besteak beste.

2006ko aurrekontuetan hiriaren mantenimenduak du berebiziko garrantzia, ia 4 milioi eurekin. Kerejetak azaldu zuenez, "urtero hiriaren mantenimenduan diru asko inbertitzen dugu, denoi gustatzen zaigulako hiria ahal den ederren ikustea. Horregatik pentsatzen dugu hondakinen bilketan, argiztapenean, lorategietan, hondartza edo kanposantuan esfortzu berezia egin behar dugula".

Euskara ere bere inbertsioa izango du. Kerejetaren esanetan, "aurrekontuko %3a euskarari zuzenduta egongo da, bi zatitan banatuta, bat Udal Euskara Zerbitzura eta bestea Euskaltegira.

Azkenik, ia 7,5 milioi euro prest daude inbertsio desberdinetarako, Panpinot kalea, Arma Plazako museoa eta Amuteko kirol gunerako besteak beste.

Udal bulegoen berrien obrak esleitu dira

Panpinot kalean udal bulego berriak izango diren erakinaren kontua berriz dugu hizpide. Udalarekin zerikusirik ez zuten arazo ugari izan ondoren, udal batzarrak 1.730.000 euroko aurrekontua onartu du proiektuari berriz ekiteko asmoz.

Duela bi urte, obra hura egiteko ardura zeukan enpresa eraikitzaileak porrot egin zuen, eta ordu tik aurrera eraikin honen lanak buruhaustea izan dira udalkideentzat.

Eraikin honen sorrerarekin, aspaldian Udalak daukan bulegoen espazio problema konpontzea espero da, horrela hiritarrari ahalik eta zerbitzu egokiena eman ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko adituek bulegoen antolaketan eta banaketan egin duten azterketa kontuan izanda, Hondarribiko Udalak bere funtzioak egoki bete ahal izateko, dauzkanak baino 900 metro karratu gehiago behar ditu.

Hau kontuan izanik, Udalean espero da obrak egiteko ardura izango duen enpresak ahalik eta azkarren hastea lanekin, ia bi urte daramatza eta etxebizitzak inongo mugimendurik gabe.



Panpinot kalean dagoen udal bulegoentzako eraikinak bi urte daramatza geldirik

Animaliak eduki eta babesteko ordenantza martxan jarriko da

Azken aste hauetan gure hirian animaliangana nako tratua egunerokotasuna hartu duen kontua da, bai kalean dauden katuei janaria emateagatik, baita abandonatuak izan diren txakur-rengatik ere.

Udal batzarrak onartu zuen ordenantza berriak zenbait ondorio dakartza: Hondarribiko hirian aurkitzen diren animalia haien babes, edukitze eta salmenta arautzen dela barnean, erroldatuak egon edo ez, eta animalia haien jabeak non bizi diren jakin gabe. Hirian bizi garen guztion arteko elkarbizitza erreztea da helburua, bai lasaitasun, osasun, hiritarren segurtasun eta ingurugiroa kontuan izanik.

Udalaren webgunean, www.hondarribia.org, ordenantza osoa ikus dezake edonork. Bertan, animalia hauen jabeen obligazioak, dauzkaten debekuak eta araua puskatuta, ordaindu beharko dituzten zigorrak zeintzuk diren azaltzen da.



Txakurrak lotuta eramatea nahitaezkoa da, bestela isun desberdinaurreikusten dira legedian.

Inauterietako kartel lehiaketa zabalik da

Udaleko Kultura Departamentuak 2006ko Inauterietako kartel lehiaketa antolatu du. Aurten Inauteriak otsailaren azken astean izango dira, eta jai hauen irudia izango dena hautatzeko, zenbait baldintza bete behar-ko dira.

Kartela egiteko erabiliko den teknika libreza izango da: margoa, marrazkia, kollage, etab., eta neurria 70 x 50 zmtakoa eta bertikala. Egileek ezingo diete beren lanei markorik jarriko.

Karteletan derrigorrez ondoko lema azalduko da: "HONDARRIBIA - INAUTERIAK 2006". Sailkatutako lehen kartelari 450 euroko saria eman-ko zaio, eta lanak Zuloaga Etxean entregatuko dira urtarrilaren 24tik 26a bitarte, eguerdiko 12.00etatik 13.00era eta arratsaldeko 16.00eta- tik 20.00etara. Lanak jendaurrean jarriko dira otsailaren 16tik 28a bitarte, Zuloaga Etxean.



Kartelak Zuloaga Etxean erakutsiko dira

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
 HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Harresietako galeria zaharrak berreskuratu nahi dira

Hondarribiko Udala herriko historiari atsikitzearren, harresien zahar-berritze ahaleginetan dabil. Harresien barnetik dauden galeria eta pasadizoak berreskuratzeko proiektua martxan jarri dute honako honetan. Lehen urratsa San Nikolaseko galeria garbitu eta txukuntzea da, eta gerora, beste galeria batzuekin gauza berbera egingo dute.

San Nikolas zubipeko galeriaren irteera zahar-berritze lanetan helburu nagusia orain, galeria hori konpondu eta irekitzea da. Izan ere, Aitor Kerejeta zinegotziaren iritziz, "80 metroko galeria da San Nikolasekoa, eta behin lanak hasita eta zaborra kenduta harrituak gelditu gara, galeria oso egoera onean aurkitu baitugu". Hau dela eta, harresi guztian zehar aurkitzen diren galeriak "pixkanaka-pixkanaka" irekitzeari ekin diote, eta beraz, lanak abiatu besterik ez dira egin.

Foru Aldundiak proiektuarekin bat egiten duenez, Udaletxeak hainbat diru-laguntza jaso ditu, baina Aitor Kerejetak adierazi duenez, "bakter guztiak jo ditu udalak finantziazioa lortzeko". Horietako bat, harresiaren eta galeria hauen garrantzi historikoari etekina ateratzea litzateke.

Hondarribiko historia eta izaera harresiari estuki lotua dagoenez, galeria hauen berreskuratzea, berezi bilakatzen ditu lan arkeologiko hauek. Izan ere, XVIII. mende arte, harresi zabal eta altu hauek, gaur egungo Alde Zaharra inguratzen zuten. Eta erdi arotik errenazimendu garaia iritsi bitartean, hamaika setio eta gerlatan

hiria defendatzeko modurik egokiena bilakatu zen.

Gaur egun, 1795ean frantsesek eginiko setioan salbatu zen harresia dugu ikusgai. Izan ere, frantsesek urte oso batez Hondarribiako hiria beren menpe izan zuten, eta urte luze hartan egun falta den harresi zatia desegin zuten, polborazko poltsak harri tarteetan sartu eta eztanda eginez. Frantzia aldera jotzen zuen harresi zatia hain zuzen ere. Dena den, oraindik ere, aintzina hondarbitarrentzat aski baliagarriak izan ziren harresi eta galeria aintz mantentzen dira, eta Udaletxearen ekintza, harresia eraiki zutenen lana bezain txalogarria da. Udal guztiek ez baitute beren ondasunak bermatzeko hainbeste ahaleginik egiten



Harresipeco galeriak 85 metroko luzera dauka eta jendeari zabalduko zaio bizpahiru hilabete barru



**BAR
HONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Jatetxea
txantxangorri

San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Aireportuaren pista luzatzea ezeztatu egin du Espainiar Gobernuak

Espainiako Sustapen Ministeritzak aurreko astean erabaki zuenez, Hondarribiko aireportua ez da luzatuko. 2005. urteko azken astean Ministeritzak aditzera eman zuenez, bere garaian Gobernuan zegoen Alderdi Popularrak aireporturako martxan jarritako plana atzera bota dute oraingoan PSOEko arduradunek.

Eskualdean urtetan luzatu izan den liskar nagusienetakoa izan da, dudarik gabe, aireportuaren konpetentziarako luzatze planarena. Arazo honek Udalaren eta Irungo Udalaren hainbat proiektu baldintzatzen zituen, hala nola Zubietako industria parkea, kirol zonalde berria, Irungo San Migel auzoan egin behar diren ehundaka etxebizitzak ere.

Bi hirietako alkateak pozik agertu dira Sustapen Ministeritzak hartutako erabakiarekin. Borja Jauregik esan zuenez, "azkenean zentzuz jokatu dute, eta hiriari hainbeste min egingo zion egitasmoa bertan behera geratu da. Orain, etenik zeuden zenbait ideia aurrera eramateko aukera zabaltzen zaigu".

Hala eta guztiz ere, Koldo Azkoitia Foru Aldundiko sailburuak bere kezka adierazi

du, "erabaki berriarekin aireportuaren pista 300 metrotan txikitzen dela, eta epe ertainera honek min handia egingo diola aireportuari, gero eta hegazkin mota gutxiago lur hartzeko gai izango direlako".

Auzi honekin talde bat larri ibili bada, hori Mendeluko Bizilagunen Elkarte da. Bozeramaileetako batek esan digunez, "erabaki berriarekin lasai geratu gara. Guretzat oso kolpe gogorra izango litzateke aireportuaren pistaluzatzea, ondorioz etxeak eta enpresak botako liratelako. Nork daki zer gertatuko litzatekeen. Gainera inguruan hainbeste aireportu izanda ez du inongo zentzurik".



Aireportuaren pista ez da luzatuko

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Sokoan haur parke berria egiten ari dira

**Hirian egongo den seigarrena izango da*

Duela aste batzuk Sokoan auzoan haur parke berri baten obrak hasi ziren. Honela, Udalak duen asmo bat egia bilakatuko da, hau da, ahal den hiriko toki gehienetan haurrei eta gurasoei zuzendutako parke bat edukitzea. Gaur egun Puntalean, Amuten, Zezen Plazan, Labrederren eta Satarkan aurki ditzakegu.

Azken urteotan Hondarribian jaiotze tasak izandako gorakadak zerikusi zuzena du Udalaren asmoarekin. Aitor Kerejeta zinegotziak esan zuenez, "Sokoan egingo den parkeak, Amutekoak dituen antzeko ezaugarriak izango ditu. Toki zabal eta ireki bat egitea da gure asmoa, haurrak lasai ibil daitezen eta gurasoentzat ere gune egoki bat izan dadin".

Lanak martxorako amaitzea espero du Udalak, udaberriaren etorrerarekin haurrak kalean egoteko aukerak handiagoak direlako.



Une hauetan parkea eraikitzen ari dira Sokoan

Bidasoa Bizirik agentziak euskara bermatzeko CDak banatu ditu dendetan

Bidasoa Bizirik agentziak, komertzianta eta ostalarien artean euskararen erabilera bermatzeko CD informatiboak banatzen ari da.

Bidasoa eskualdeko komertzioetan euskararen erabilera urria dela eta, Euskal Eurohiria Elkargoak ekoiztutako CD informatiboak banatuko ditu Bidasoa Bizirik agentziak. Irundarren %29 besterik ez du euskara bere eguneroko bizitzan baliatzen, eta Hondarribiaren kasuan, biztanleriaren %54 bat bada ere, azken urteetan tendentzia beherakorra dela dirudi. Hala ere, kontuan hartu behar da, geroz eta kanpotar gehiago aukeratzen duela arrantzale herri ohia etxebizitza berria erosteko. Baina arazo hori beste kontzertuko tronpeta da.

Hau guztia jakinda, beharrezko bilakatu den sentsibilizazio kanpaina baten testuinguruan koka daiteke CDaren ekoizpena. Izan ere, eskualdeko komertzio, establezimendu eta ostalarien artean euskararen erabilera bermatzeko banatuko dira CD hauek.

Euskarri hau, hala ere, ez dago euskara hutsez egina, frantsesa eta gaztelania ere baliatzen baita, gida-liburu moduko euskarritzat jota. Bertan, egunero erabiltzen diren ohiko espresio eta esaldiak hiru hizkuntzatan aurkitu daitezke, gerora, denda eta jatetxeetako langileak baliatu ditzaten.

Bidasoa Bizirik agentziaren esanetan, "Hiru hizkuntzak CD honetan sartzearen arrazoia, gure eskualdeko errealitate bati erantzuten dio".



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
GENERALI ASEGUROAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 4 behea
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Euskal txiste grafikoen lehiaketako lanak erakusgai



Zuloaga Etxean erakutsi dira aurtengo lanak

Euskara Batzordeak antolatzen duen Euskal Txiste Grafikoen Lehiaketan parte hartu duten guztien lanak erakusgai daude Zuloaga Etxean urtarrilaren 9tik 22a bitarte. Goizetan 10.00etatik 13.00era irekitzen da, eta arratsaldean 16.00etatik 20.00etara.

62 denetara lan azertu dituzte Antton Olariagak, Iñaki Arzak eta Aiert Alonso epaimahaideek. A mailan 4 lan aurkeztu dira, B mailan 45 eta D mailan aldiz 13.

A MAILA:

1. SARIA: ENEKO AZPILLAGA CUEVAS
2. SARIA: XABIER LASALDE GALARZA

B MAILA:

4 sari berdinak ematea erabaki du epaimahaia

Sarituak hauek dira:

IKER MONTOYA IRIDOI
ENEKO ARRARAS
BEÑAT LAPITZ DANBOLENEA
BEÑAT LEKUONA MARISKAL

D MAILA:

3 sari berdinak ematea erabaki du epaimahaia

Sarituak hauek dira:

NAROA GIMENEZ CAMINO
JON URANGA MUGURUZA
IKER GABILONDO

pa
inmobiliaria
gestoría
administración de fincas

pérez alkain

Matxin de Artzu, 14
20280 Hondarribia
Tel. 943 64 21 57
Fax: 943 64 54 16
e-mail: gespeat@euskatnet.net

Jatetxea

Gran Sol

. Sukaldaritza tradizionala
. Eguneko menua
. Karta

San Pedro kalea 63
Tel. 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA

Skate parke berria ireki da

Nahiz eta zenbait gazte erabiltzen ari diren, oraindik ez da ofizialki ireki Hondartza kirol guneko skate parke berria. Egun sartu eta ateratzeak errezteko ate bat ipintzen ari dira.

Gogoratuko duzuenek, iaz skate parke hau kirol gunaren beste aldean eraiki zen. Aldez aurretik ezarritako ordutegiak ez ziren inondik inora ere bete, eta inguruko bizilagunak Borja Jauregi alkatearengana zuzendu ziren bere kexak aurkezteko asmoz.

Egoera aldatzen ez zenez, Udalak parkea desmontatu eta belar artifizialeko zelai berriaren aurrez aurrera eramatea erabaki zuen. Nahiz eta inguruan bizilagunak ez den egongo, Udalean espero da gazteek arauak errespetatzea.

Kirol eraikuntza berri honekin, Kirol Departamentutik bilatzen den helburura heltzeko beste urrats bat eman da, hau da, ahalik eta diziplina gehien praktikatzeko aukerak zabaltzea hiritarrei.



Skate parkea tokiz aldatu da bizilagunei ahalik eta enbarrago gutxien sortzeko

Putzu bat aurkitu da Ubillan kalean

Ubilla kalean azken aste hauetan burutzen ari diren indusketetan putzu berri bat agertu da. Jakina denez, Hondarribia harresiz inguratutako hiria zenez, sarritan setiatua izan zen, beraz ohikoa zen putzuak eraikitzea, publikoak nahiz pribatuak izan.

Duela aste gutxi Lesakako Bordamine eraikuntza enpresa bertan etxebizitzak eraikitzeako proiektuaren lehen urratsak ematen hasi zen. Hala ere, arkeologikoki gune aberatsa dela jakinda, Arkeolan Historia eta Arkeologiako Azterketa eta Ikerketa Zentroak indusketak hasi ditu, eta beste putzu bat aurkitu du.

Nerea Sarasola, indusketaren arduradunak esan zuenez, "uste dugu putzua XVIII. mendekoa dela, baina hala eta guztiz ere Artxibategietan dokumentazioa aztertzen argi gara, gune honetan egin diren eraikuntzak zeintzuk izan diren. Ikerketa hauek amaitzean putzuari buruzko informazio zehatza izango dugu".

Bestalde, Bordamine eraikuntza enpresa egun etxebizitzaren proiektua prestatzen ari da, beraz ezin da jakin zenbat etxebizitza eraikiko diren Alde Zaharrean hutsik geratzen den lur zoru zabal bakarrean. "Arkeolanen ikerketak amaitzean, guri proiektua ere amaituko dugu. Foru Aldundiari jarraiki, ezinbestekoa da arkeologi ikerketak amaitzea eta aztertzea, gero eraikuntza hasi ahal izateko" esan zigun enpresa eraikitzaileak.



Aurkitu den putzua Mamutzar jatetxearen atzekaldean dago

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

IÑIGO SALABERRIA

Hondarribiko Pilota Elkarte



Ukaezina da Hondarribiko biztanleen artean kirola egiteko joera gero eta handiagoa dela, eta kirolaren inguruan dagoen elkarte pila dela horren adierazgarri. Horretaz jabeturik eta gure hiriko pilotaren osasun-egoeraz gehixeago jakin nahian, Iñigo Salaberriagana jo dugu eta hona jarraian, Hondarribiko Pilota Elkarteko presidenten honek, elkarteari eta pilotari buruz emandako xehetasunak.

1) Nolakoa izan zen Hondarribiko Pilota Elkarteen sorrera?

80. hamarkadan sortu zen elkarte Hondarribiko pilotazale batzuen ekimenez. Jarraian, Laka, Arbelaitz eta Norberto Trantxe aritu dira lanean eta ondoren, zuzendaritza-batzorde berrikook. Gure historia zuzendaritza-batzorde gisa nahiko berria da; aurreko zuzendaritza-batzordearen laguntza jaso dugu, baina gure lana azken urteari baino ez dagokio.

2) Ze pilot-eskaintza dago elkartean? Zein da zuen antolakuntza?

Kudeaketa edo gestioari dagokionez, hiru arlo dira bereiztekoak: lehena, esku-pilota eskolari dagokiona; bigarrena, "Emakume pilotari" ekimena eta hirugarrena, senior mailako erreminta arloa. Lehenengoa, esku-pilota eskola, alegia, gazteei zuzenduta dago; 35-40 ume inguru ditugu benjamin mailatik hasita kadete mailaraino. "Emakume pilotari" atalean 10-15 neska daude 2006ko urtariletik aurrera palaz ariko direnak. Bukatzeko, berriz, seniorretako erreminta arloa aipatu behar. Sail honetan gomazko paletaz gizonetzkoen senior mailan Gipuzkoako txapelketa jokatzeko ari diren jokalariek ditugu, eta gainerako erramintetan pasakalaxoa ere badugu.

3) Ze txapelketatan hartzen duzue parte?

Benjaminetatik haur-kategoriara bitarteko eskolen

arteko txapelketetan izaten gara, haur-kategoriako esku-pilota txapelketetan ere bai, gomazko paletan senior-kategoriako Gipuzkoako txapelketan, eta azkenik, pasaka eta laxoari dagozkienetan.

4) Hondarribian kirol honen jarraitzaile asko al dago?

Bai, pilotazalerik bada, noski. Gure lana Hondarribian dagoen ume harrobiaren eta pilotazaleen bilkura-gune izatea da. Orain pare bat hilabete hasi ginen bazkide berriak egiteko "kanpainarekin" eta harrera ez da batere txarra izan, dagoeneko 100 lagunetara hurbildu baikara. Hala ere, gure kezka nagusia beste bat da: frontoiaren egoera. Udalarekin zenbait elkarriketa izan ditugu eta badirudi frontoiaren birmoldaketaren kontua nahiko bideratua dagoela, nahiz eta gaia oraindik guztiz loturik ez dagoen.

5) Jostaldi frontoian entrenatzen al zarete beti?

Esku-pilotan eta gomazko paletan ari garenean, bai; baina pasaka-modalitatean aritzeko Soroetara joaten gara.

6) Sakrifizio handiko kirola al da pilota? Ordu asko eskaini behar al zaizkio?

Kirol guztiek bezala pilotak ere bere orduak eskatzen ditu. Umeak, esaterako, astean birritan entrenatzen dira (astearte eta ostegunetan) eta saioak ordu edo ordu eta erdikoak izaten dira. Hala

ere, pilotak beste kirolen aldean badu, nire ustez, bereizgarri jakin bat: talde handi batean jokatzearen laguntza falta sumatzen dela. Pilotariak banaka, bina-ka edo asko jota hirunaka joka dezake (federazioak ezarri bezala). Horretaz gain, fisikoki ere oso kirol zorrotza da pilota, eskuek egoera onean egon behar baitute, besteren artean.

7) Zein dira elkartearen beharrak eta jasotzen dituen laguntzak?

Beharren artean premiazkoena frontoiaren arazoa konpontzea da. Laguntzei dagokienez, orain arte udalaren diru-laguntza izan dugu, baina guk geure baliabideei esker egin nahi dugu aurrera. Bazkideak biltzen ari gara, bazkideei proiektu interesgarria eskaini nahi diegu eta aldi berean eragile gehiagoren laguntza lortu. Produktu erakargarria aurkeztu nahi dugu haurren mesedera-ko.

8) Ze ezaugarri behar ditu pilotari on batek?

Lehenik, fisikoki sasoian egon behar du eta eskuekin ondo moldatu. Bigarrenik, irabazteko grina behar du pilotariak; eskuak mintzen hasten zaizkionean ere irabazteko irrika izatea ezinbestekoa da. Hirugarrenik, burua ondo jantzita edukitzea; buruik gabe ez dago pilotari onik, eta garrantzitsua da norberaren eta arerioaren neurriak zeintzuk diren jakitea. Bukatzeko, berriz, ondo pasatzearen nahia, eta horixe da hain justu gure helburua: haur eta gazteek pilotan jolastuz ondo pasatzea.

8) Erantzukizun handia al da elkarte-ko presidente izatea?

Gure helburuak zehaztea, helburu hauek lortzeko bideak proposatzea, baliabideak eskuratzea... honek

guztiak orduak eskatzen ditu eta zuzendaritza-batzorde berrikook ahalegintzen ari gara hau guztia nolabait bideratzen. Lana badugu, baina pozik gaude emaitzekin. Izan ere, haurrak eta gurasoak gustura ikusten ditugu, udalarekin dugun harremana sendotzen ari da eta federazioarekin ere erlazio estuagoa dugu. Dena dela, gure ardura gero eta handiagoa da gero eta ume gehiago baitago.



Ainara Elizondo



Pala jokalariek maila bikaina erakutsi dute

9) Hondarribian pilotan ba al dago promesarik?

Bai, gure eskolatik kanpo hor ari dira Odriozola eta Manterola, eta gurean, haur-kategorian, Gaztelumendi eta Etxarte Gipuzkoako txapelketa jokatzen ari dira.

10) Kanpoko pilotaririk ba al dago zuenean, ala denak Hondarribikoak dira?

Gure lana Hondarribira egokitzen da. Guk pilota lantzen dugun mailan herri bakoitzak baditu bere bitartekoak, hala nola, Oiartzunek, Lezok... bakoitzak bere eskolak ditu, eta, gainera, hori ez da gure helburua.

Pilota astintzeko gogoz dagoen orok har ditzala, bada, Iñigoren hitzak, eta nahi izanez gero, jo dezala elkarte-ara. Batek daki, agian hurrengo Retegi Hondarribiko harrobitik aterako da...

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

ALTZOKO ERRALDOIA



Martin Iturbe

Izen haundikoa zitzaigun goiherriarrei "Altzoko Haundia"ren kontua. Ipuin mailak ondotxo gairatzen zituen gure artean halako itxuraz eskeintzen zitzaigun gizasemeak.

Nik ez dakit, alderdi hauetan, Beterrian alegia, hari buruzko ezagupide haundirik badenik. Dena den, gaurko honetan harenganako begirada dakart. Izan ere, hiruorriko bat eskuratu nuen lehengo batean Altzo bertan, eta lekualdatuz, horritxo horietan eskaintzen zaiguna 'Hondarribia' aldizkarian txertatzea erabaki dut.

Migel Joakin Eleizegi Ateaga, Altzoko Erraldoia, jaiotzetik heriotzara 1818 urtetik 1861 urtera mundu hau zapaldu zuen giza-semea dugu. "Altzoko Aundiya" benetakoa, hezur-haragizko gizona izan zen. 1818ko uztailaren 10ean sortu zen, goizeko lauretan, Altzo Azpiko Ipintza base-rrian. Bederatzi anai-arrebetatik laugarrena zen. Senideen neurri fisikoak arruntak ziren.

Hogei urte bete ondoren, denbora gutxian asko hazten hasi zen. Bidaia bakoitzetik itzultzean, joan baino haundiago etortzen zen, orduan lagunekin eta Elizako erretorea buru izanik, haren altuera eta zabalera zizelkatzen zituzten, Altzo Azpiko San Salvador Elizako atarian.

Bizargabea eta argala zen, ongi proportzionala zegoen. Bere haunditasunak lotsarazi egi-

ten zuen. Gizon ona, apala eta langilea bezala deskribatu dute. Tutean aritzea zuen gustokoen eta aldian-aldian loterian jokatzeko ezkutuka. Erraldoiak ikuskizunetan parte hartzeko xedez sortutako elkartearekin kontratua izenpetu zuen.

Kontratuaren bitxikeriak

-Egongo zen lekuan egonda ere, elkarteak mezara joateko aukera eman beharko liote egun guztietan.

-Erretzeko beharko lukeen tabako guztia elkartearen gain egongo litzateke.

-Elkarteak Migel Joakin inongo itsasotan ez itsasoratzea.

Meza aurretik, Joakin San Salvador Elizaren aurreko petrilean esertzen zen. Honek 1,11 metroko altuera zuen eta hankak lurreraino iristen zitzaizkion. 23 urterekin, 184 kilo

pisatzen zuen, eta gehien pisatu zuen garaian, 203ra heldu zen.

Jan eta edateko, gutxienez hiru pertsona elikatzeke adina beharko zukeela kalkulatu da. Emakume ingeles erraldoi batekin ezkondu nahi zutela esan ohi da, baina Joakinek benetan nahi zuena etxera itzultzea zen.

Hau da lehen adierazi dudana hiruhorrikoan datorrena. Datorren zenbakian, argazki eta guzti, borobilduko dut Migel Joakin Eleizegi Ateagarekiko agerpen-izpiak.



Bordari eta Satarka lehiaketako irabazleek saria jaso dute

Aurten hogeitabigarren aldiz ospatu den Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketako irabazleak ezagutzen dira. Abenduaren 17an Udaletxeko Areto Nagusian egin zen sari banaketa. Denetara 65 lan aurkeztu dira.

Bordari ipuin lehiaketan, 18 urtetik gorakoentzat den A mailan 11 lan azaldu dira, eta

41 adin nagusitasuna ez dutenentzat. Satarka Lehiaketan, A mailan 7 lan irakurri dituzte epaimahaikideek eta beste 6 B mailan.

Ipuinen epaimahaia Mayi Izak, Juan Garziak, Mikel Garmendiak eta Jexux Mari Mendizabalek osatu dute. Olerkiena aldiz, Martin Iturbek, Xabier Aranburuk, Markox Balentziagak eta Mertxe Mitxelenak.

BORDARI A MAILAN

- 1.saria: Irati Goikoetxea Asurabarrena
- 2.saria eta Hondarribiko Onena: Ainara Elizondo

BORDARI B MAILAN:

- 1.saria: Itsaso Cañada Peña
 - 2. saria: Ane Garcia Lopez eta Arantxa Irigoien
- Hondarribiko onena: Mikel Elorriaga Urretabizkaia

SATARKA A MAILAN

- 1.saria eta Hondarribiko onena: Ainara Elizondo
- 2.saria : Irati Goikoetxea Asurabarrena

SATARKA B MAILAN

- 1.saria eta Hondarribiko onena: Igor Olaskoaga
- 2.saria: Ana Lupe Iridoi Amunarriz

22 eta 23. orrietan irakur dezakezu aurten saritutako lehen lana Satarka Lehiaketan.



Argazkia:
Floren Portu

SAINDUA GAZTELEKUKO PROGRAM

Udaleko Gazteria Departamentuak ekitaldi ugari antolatu ditu Saindua Gaztelekuan 2006. urteko lehen hiruhilabetekotari begira. Programan, ikastaroa, tailerrak eta batzarrak desberdintzen dira. Hona hemen nolakoa izango den 12 eta 29 urtekoei begira antolatu den ekitaldi sorta.

Ikastaroak

12-29 urte bitarteko gazteentzat

Kuota: 20€.

Izenematea: Urtarrilaren 14a arte.

Gitarra: astearte eta ostegunetan 19:00etatik aurrera (taldearen arabera).

Kapoeira: Ostegunetan 19:00etatik 20:30etara.

Sabel Dantza: Ostiraletan 19:30etatik 20:30etara.

Tailerrak

12-17 urte bitarteko gazteentzat.

Dohain

Eskulan tailerra: otsailaren 1etik aurrera asteazkenero 18:00etan

Sukaldaritza tailerra: otsailaren 3tik aurrera ostiraleroko 18:00etan.

Batzarrak

12-17 urte bitarteko gazteentzat

Bazkideen batzarra: Urtarrilaren 27an 19:00etan. Zertarako? Irteerak proposatzeko, txapelketak antolatzeko, gaztelekuko funtzionamendua erabakitzekeo...

Batzar Orokorra: Martxoaren 17an 19:00etan. Herriko gaztetxoen iritzia jasotzeko eta proposamenak egiteko: programazioari buruz, funtzionamendu araeuik buruz, gaztelekuaren apainketa eta mantenimenduari buruz...

Informazio gehiagorako, Saindua Gaztelekura deitu daiteke:
saindua@udal.gipuzkoa.net

Bestela, **943 643198** telefonora deitu



AKETA URTARRILA - MARTXOA 2006



Saindua Gaztelekutik hainbat jarduera prestatzen dira urtero herriko gazteei begira. 2006ko lehen hiruhilabeteko honi begira, ikastaroak, irteerak eta joku desberdinak prestatu dira Udaleko Gazteria Departamentutik. Informazio gehiago behar duenak, 943 643198 telefonora deitzea besterik ez du.



ERREGEEK POZA EKARRI DUTE AURTEN ERE



Urtero bezala Erregeak Bentara etorri ziren, haur eta bere gurasoen gozamenerako.



Arraun Elkarteak Gipuzkoako kirol elkarterik hoberena

Hondarribiako Arraun Elkarteak Gipuzkoako kirol talderik onenaren saria jaso zuen igaro berri diren Gabonetan, Foru Aldundiaren eskutik. Saria Donostiako Kursaal aretoan banatu zen, bertan izandako 2005eko Kirolaren Galan.

Ama Guadalupekoa traineruko arraunlariak, oraindik ere, Kontxako banderaren gaineko azken erabakia itxaroten ari badira ere, aurtien egindako lanaren fruituak jasotzen ari dira. Izan ere, Kirol Prentsaren Elkarteak eta Foru Aldundiak urtero banatzen dituzten Kirolaren Galako Sarietan hondarribiar arraunlari taldeak, kirol elkarterik onenaren saria jaso du.

Jose Juan Gonzalez de Txabarriren eskutik. Arraun Elkarteko presidentea Joxemi Eldua-yenek izan zuen Kursaal aretoan saria jasotzeko ardura. "Gipuzkoa bezalako arraunaren punta-puntako probintzian, dau-den arraun elkarre garrantzitsu guztien artean, gurea saritua izatea harro sentitzeko modukoa da". Horrela, banderak eta beste-lako errekonozimendu saria guztiak, elkarte-ak eginiko lanaren ondorio zuzena direla azpimarratu zuen. Izan ere, ez zieten arraunlari eta teknikoei soilik eskerrak eman. "Sariak arraunlariak eta teknikoen lanari esker irabazten badira ere, elkarteko bazkideei, zaleei eta herriari orohar eske-rrak eman nahi genieke, denboraldi osoan eginiko lanagatik".



Arraun Elkarteko arraunlariak denboraldi bikaina osatu ondoren, Elkartek Gipuzkoako onenaren saria jaso du. Iruditán, Laredoko uretan uztailean irabazitako banderarekin ateratako argazkia.

eukeni optika

Gure ikasleak Baiona-Donostia Euskal Eurohiria zer den ikasteko bidean



Koldo Ortega

Gure irakurleari axola ez bazaio, gaurkoan ez gara Hondarribiko historiari mintzatuko, ondorenaz baizik. Historia herri batentzat garrantzitsua bada, zer esanik ez gure begien aurrean gerta daitekeena datozen urte eta hamarkadetan. Adibide bat, duela zenbait urte martxan jarri zen "Baiona-Donostia Euskal Eurohiria" dugu.

2005. urtean, Erein argitaletxeak 'Bayonne-San Sebastián Eurocit  Basque-Euskal Eurohiria-Eurociudad Vasca' izeneko eskola liburua argitaratu zuen, DBHko bigarren zikloko ikasleei begira. Gainean daukagun zerbait da, hori dela eta



DBHko ikasleentzat prestatu den liburua

egoki iruditzen zaigu egungo ikasleei Euskal Eurohiria zer den erakustea, beraiek izango baitira etorkizuneko agintariak. Urrutirago joan gabe, Irungo Pio Baroja Institutuko ikasleek liburu hau jorratuko dute.

Liburuaren nahia, Eurohiria zer den eta zer izan nahi duen jakitea da alde batetik. Hiri berriak barne hartzen dituen geografia alderdi nagusiak ezagutzea, berarekin zerikusia duten lurraldeen historia komunaren alderdiak ezagutzea, eta bertoko ekonomi jarduerak bereizten jakitea beste gauza askoren artean.

Hala ere, ez da bakarrik ikasleek ikasi beharreko

arlotzat. Denoi dagokigun zerbait da, beraz, datozen lerroetan liburuan azaltzen diren zenbait atal azaltzen saiatuko gara, irakurleak ere gehiago jakin dezan Euskal Eurohiriari buruz.

Zer da Euskal Eurohiria?

Arku atlantikoaren erdi-erdian, Bilbo eta Bordele artean. Frantzia eta Espainia arteko mugaren mendebaldeko muturrean. Bidasoa ibaia historian zehar izandako mugaren bi aldeetara, Baiona-Donostia Eurohiria dago kokaturik.

Baiona-Donostia Euskal Eurohiria Garatzeko Mugaz haraindiko Agentzia lankidetzaren egitura Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baiona-Angelu-Miarritze Aglo-

merazioko Erkidegoak (lehen Baiona-Angelu-Miarritze Barrutia) sortu zuten. 1997an sortu zenetik, egitura hau "Baiona-Donostia Mugaz haraindiko Behatokia" deitzen da, eta juridikoki interes ekonomikoa duen elkarte europarra da, eta Donostian du egoitza.

Baiona-Donostia EuroHirian mugaz haraindiko lankidetzaren sustatzea da agentziaren helburua. Horregatik, hainbat alderditan hartzen du parte: lurraldearen banaketatik hasi (Eurohiriaren Liburu Zuria, sektore-azterketak) eta Eurohiriko biztanleen



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

bizitzarekin lotura zuzena duten gaietaraino, hala nola kirola. Halaber, parte-hartzen du lankideen arteko harremanetan, proiektu-ekimenetan, etab. Hala ere, agentziaren zeregin nagusia behatzailea izatea da.

Liburu zuria

Eurohiriaren Liburu Zuriak proposatzen du, lehenik eta behin, intermodalitate, komunikazio eta informaziorako plataforma atlantikoa eratzea. Eurohiriak bereganatu egin du ETE (Europako Lurraldeko Estrategia) dokumentuaren orientabideak defendatzen duena, hau da, garapenerako euro-korridoreak sortzea, lurraldeetara hobeto eta errazago iritsi ahal izateko.

Eurohiriak Europako nazioarteko ardatz nagusietako batean mantentzea du helburu, eta horretarako beharrezkoa izango da logistikaren kultura zaharra joera eta zerbitzu berrietara egokitzea, erantsitako balio handiagoa lortu ahal izateko. Era berean, garraio azpiegituren inguruko hausnarketari ekin zaio, igarotze fluxuak eta metropoliaren barneko egitura berria egituratzea bateragarriak izan daitezken.

Hori kontuan hartuta, garraiobideen arteko desorekak murriztea bultzatu behar da, trenbidearen bizkortzea sustatu behar da, eta intermodalitateari bultzada eman behar zaio, eta katea logistikoaren barruan sartu behar dira itsasoko garraioa eta trenbideari lotutako egitasmoak. Eta hori guztia egin beharko da garapen ekonomikoa garapen eraman-



Eurohiria sortu zen eguneko irudi bat, Gredinet eta Galdos jaunen sinadura ekitaldian

garriaren ingurunean indarberritzearen bidez bultzatzeko, eta bizi kalitatea sendotzeko asmotan.

Euskadi-Aquitania

Akitaniako Eskualde Kontseiluko presidente eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari jaunek hasierako protokolo bat izenpetu zuten, alde biko

lankidetzari buruzkoa, 1989ko urrian. Protokoloa oinarrituta zegoen 1980an, Europako Kontseiluak mugaz gaindiko lankidetzari buruz egindako Kontentzio Markoan eta Europako Parlamentuak, 1988ko azaroan, eskualde politika eta eskualdeen eginkizunari buruz emandako Ebazpenean. Protokolo hori garatzen ari da arlokako alde biko jarduketetan eta mugaz gaindiko ekintzei laguntza emateko eratutako urteko Fondoaren bitartez.

Bidasoa-Txingudiko Partzuergoa

Hendaia, Hondarribia eta Irun udalerriek osatzen dute Eurohiriaren erdi-erdia. 1998an, udalerririk, egunez egun bizi izan baitira mugak baldintzaturik, Baionako Itunean adierazten den Zuzenbide Publikoko lehenengo irudi juridikoa osatu zuten, historian haien artean izandako elkarlaneko gertakari ugarien babespean. Bidasoa-Txingudiko Partzuergoaren helburuak herritarren eta gizarte eta ekonomia eragileen batasuna indartzea, eta lehenago garatu diren lankidetzak eta elkarren arteko erlazioa finkatzea dira, era horretan, lurraldea egituratzeko.

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

truck
diskoteka
foru kalea, 13

ARRANDEGIA
ITSAS ALDE

C/ Markos Deunaren Enparantza, 7
Puntala Auzoa
20280 **HONDARRIBIA**
Tel.mobila: 609 414145

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 08 88



Urtariletik hasita, Satarka lehiaketan sari-tuak izan diren lanak argitaratuko ditugu. Honako hau, A mailan lehen sailkatu zen olerkia irakurtzeko aukera luzatzen dizuegu.



Ainara Elizondo

(...)

*Ai! ez balitz aberriagatik, ene aberri maitea,
bihotz-bihotzean daramadan aberri maitagarria,
berriz ere hik esnatuko nauk eta hilgo duk ene ametsa.
Lurrari lotua nauk, haur errukigarri,
besteren aske izanean dudalarik bekaizkeri.
Jauna!: indartuko ahal duzu euskaldun herria,
jarraitu dezan beti Zure sinesmen bidea
eta ezagutu dezagun noizbait besteak bezain librea.*

(...)

(SAN MARTIN, Juan, "Itxaropen argi-printzak", Giro gori)

ITZALALDIA



I.-Bizitzaren harizko zubiak
mutur batean gorderik jaiotza,
denboraren ezproi herdoilduek
dakarkigute, urtez urte,
bestaldeko hilen hotsa.

II.-Gezuraren ziztada mingotsak,
gorrotoaren aldarri apalak
oinazez urratu ohi ditu
bihotzaren hainbat zirrikitu
euri-erauntsiak uzta oparoa bezala.

LUMARI IDAZTEN UTZIZ
GALDUKO NITUZKE GUZTIZ
BIHOTZ-ARIMAK, ZENTZUA, KORDEA;
HITZEN HERRIAN BIZIZ,
HAINBAT OLERKI GAZIZ
EMANEZ MUNDUARI KOLOREA

III.-Airezko izara zurbila,
eguzkiaren euskarri sotila,

olioz gantzutzen den moduan
eria bere azken orduan,
eztainuzko printzek estaliz da hila.

IV.-Maitasunaren horma finak
alde banatan bi egi;
arrosaren usain gozoa,
arantzaren zauri gaiztoa,
pasioen bi aurpegi.

HERIOAREN ERBESTEA

I.-Kandelaren iluntasunak dio
sinestuna ez dela fio
pausoaren atsedenez, zortedunaren penaz,
otoitzaren biharamunak dakarrenaz.

II.-Eliz-atarian kolpaturik
mila arima galdu, fede ustelaren amu;
inor ez da lotsa, inor ez da damu.
Harrokeria paparrean galoia bailitzan
herrenkan aldarera makina bat mamu.

LUMARI IDAZTEN UTZIZ
ZIZELA HARRIARI JOSIZ
PAPERERATZEN DITUT ISTORIOAK, KONDAIRAK, ALEGIAK;
HIZTEGIEN HARROBITIK HARTUZ
LERROEN KONPASERA ITXURALDATUZ
NOIZBEHINKA GEZURRAK, NOIZBEHINKA EGIAK.

III.-Herioak erbestea dakar
zenbat malko, zenbat negar,
arnas hartzeari behin betikoz utzi behar.
Eme eta ar, gazte eta zahar,
hiljantzia bihurtu zaigu
bizitza honetako berdintasun bakar.

bar-restaurant
arrantzaleen
kofradia

tel. 943 64 42 12
paseo ramón iribarren s/n - nueva lonja-
20280 hondarribia (gipuzkoa)


Hemen zure opariak eros
ditzakezu; PSP, PS2,
filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik
aldatu, Orange
txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

ZENBAIT EMAKUMERI



Ezpainetan karmina, dilindan adats luzea, fina;
bihotzean pozoina, lepoan lurrina.
Berunezko izter argalak, haragiz josiriko zotalak,
adabakiak diruditen emakume-atalak.

Takoi luzeen akrobazia, itxuraren penitentzia,
ezerezaren garrantzia.
Bular antzuak atari, kirurgiaren emari,
plastikoaren opari.

Koipearen aberrian, zilborra erdi-erdian,
zirujauaren lorratza gerrian.
Helburua? Non heldua,
nahiz askok haizezkoa izan burua.

Erruki ditut gizonak, animalia otzanak,
emakumeen oinetan etzanak.



EGI-GEZURRAK

Ilunabarraren marmarrak iratzarri ohi nau
enbataren soseguz, mutuaren erreguz,
isekaren ferekaz, lehortearen errekaz.

Leihoetako errezelak, emaztearen hitz krudelak,
errezeloak, leloak, aitzakia geldoak.
Gau-mahaiaren gainean ezin aseko itauna,
ezkon-bizitzaren funtsa eta amarauna.

"Gogoan al duzu lore usaintsuen bidea?
Eskutik heldu ninduzuneko arratsaldea?"
Argiaren garrak burdina urtuko du negarrez,
urmaeletan arnasa itoko, sua piztuko zotz heze eta abarrez.
Egiaren laurdena nahiago baitut, iruzurraren osotasunaren orde.

DENBORAK NORA

Denboraren hodian barrena, tristura bidaiari,
oroitzapenez gizenutako maleta besapean gidari,
hautzaroko malenkonia aitzindari.

Enborren ezipal ihartuak, errauts bihurtuak,
suaren txistuz urtuak.
Urteen joanaren penaz odolustuak.

Gaztaroaren arroka higatuz doa orroka,
olatuek dakarten bitsarekin mokoka;
zahartzarua duela muga, atzerri, behaztopa.

Denboraren hodian barrena, memoria herrena,
tunelaren bestaldean zain dugu azkena,
ordu anahantzen dugu behin-betiko garena.

ITSU-ITSUAN



ITSU-ITSUAN

Lurpeko barrunbeak begiradaren erdira,
ilunpeko itzalak bisaiaien estalgarri;
gau amaigabearen lotura eten ezinak
bihurtu nau eguzki-argitan elbarri.

Leihoetako kristal gardenak, horma gotor direnak,
ikusmenaren ispilu dirdaitsu;
beltzuneen kaiolan gatibu naukaten kateek
behartu naute izatera itsu.

Kostaldeko marinelok itsasargia gidari,
olatuak gurutze bide, urrunean lur idorra.
Orduko oroitzapenek nolabait arintzen dute
bizitzaren uzten ez didan itsumenaren zigorra.

Lurpeko barrunbeak begiradaren erdira,
ilunpeko itzalak paisaiaien estalgarri;
lanbroen arteko leize heze sakon haxe
argiaren gose, bizitzaren egarri.

GORPUTZ ARIMAK

Orduen bulebarrean senaren batela balantzan;
sukar-ametsak jota, eldarnio-uhinak dantzan.

Olatuen boleroa, musika beroa, mugimendu eroa.

Maitasunaren guduan arrazoia balazta, harramazka,
eman gabeko muxuen amorruzko bazka.

Fiordoaren beste muturrean gozamenaren baliza,
emearen haizulo, bekatuaren geriza.

Gorputzaren azpizuna, arimaren garizuma;
haragiaren erresuma, sinismenaren kaliza.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*


San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



BIDAIAK LUZEENAK

Izarra bezain urrun eta eratzuna bezain hurbil, baina beti harriarriaren atalasean, hortxe dago ipuina. Errituz zipiritindutako kutxatila, esku sotilak idatzitako eskuizkribua, kometa bat, erretinan eztanda egiten duen txinparta, gauza bitxien taupada, horixe da ipuina. Ipuinak bidaia txartelaren zehaztasuna izan behar du, trapezio-hariaren eta errailen patu-zentzua, lore arraroaren pozoia, odol tanta baten misterioa, filmaren distira, karta partiden bidegurutzea, harribitxien imana. Xehetasun guzti hauek harrapatzeko ipuinlariak barrutik esploratzailez jantzi beharra dauka, ipuinak bidaia-rik luzeenak izaten baitira.



ZAZPI BIDER ZAZPI

"Fernando eta Sebastian trenbidean daude, tunelari begira, bata bestearen ondoan. Sebastian eskuinaldean dago; Fernando, ezkerrean. Heritik bi kilometroa daude, tuneletik irtenda ageri den tokian: belardi txiki bat ezkerrean, ibairaino, eta belardi handi bat eskuinean, muinoraino. Hirurak eta laurdenetan iristen den trenaren zain daude. Trenaren aurrean gehien eusten dionak irabaziko du azken froga hau, alegia, trena etorri eta trenbidetik beranduen erretiratzen denak.

Sebastian kuadrilako liderra bihurtuko da, baina horretarako zazpi froga gainditu beharko ditu, eta ez nolanahikoak. Sebastian hiritik heldu da eta galantak pasaraziko dizkiote herriko lagunak beren kuadrilan onartu baino lehen. Hura, ordea, ez da erraz izutzen den horietakoa, eta, lagunaren harridurarako, denak errendituko ditu".

Gazteentzako eleberririk klasiko bat idatzi du oraingoan Juaristik, abentura eta intrigaz betea.



HONDARRIBIKO HARRESIAK

Cesar Fernandez Antuñak hirigune historikoa inguratzen duen multzo gotortuaren garapena aztertzen du. Erdi aroko harresirik XV. mendeko bukaera eta XVI. mendearen arteko aldi historikoa aztertzen du nagusiki. Harresietako historia, garapena, eraikuntza-faseak, parte hartu zuten arkitektoak, plano eta proiektuak erakusten dizkigu. Arkitektoaren aldetik bitxi zoragarri hau behar bezala ezagutzen lagunduko digun azterketa bat da.




EGUNEROKOA EZ DENA

Lehen ipuinekin batera, galdera berbera askoren ahotan, gero sarritan errepikatua: "Eta? Noizko liburua?", liburua kaleratu ezean idatziak ezer gutxirako balioko balu bezala...

Ordutik, presarik gabe, hor pilatu dira istorioak denbora luzean, kartoizko karpeta batean, elkarren gainean.

Halako batean, argitaratzea erabaki eta orain artekoak irakurtzen hasitakoan, sorpresak ere izan dira tartean, batzuetan nekeza baita zeure burua hor ezagutzea; gertatzen da, adibidez, istorioaren hariak nora eramango zaituen ez akordatzea, edo seko ahaztea garai hartan hain presente ziren obsesioak, ipuin-itxura hartuta: bultzatzen gaituen bizi-poza, higatuz doazen bikote-harremanak, denboraren joan nekagaitza, iraganarekiko kate-lotura... Guztiak ere -guretzat, behintzat- egunerokoak ez diren istorioak.



NOTEBOOK

Ryszard Kapuscinski kontatzen du New Yorkeko liburutundea batean bere liburuak zazpi sail ezberdinetan barreiatuak aurkitu zituela. Asko poztu zen, bere idazkera ezin zutelako sailkatu. "Horixe bilatzen dut nik: idazteko manera berri bat", esango zuen.

Pako Aristiren liburuak ez daude New Yorken, baina guregan antzeko zirrara sortzen dute, eta sailkatzeko dira. Kazetaritza? Fikzioa? Saiakera? Kronika? Poesia? Idazteko era berri bat, dudarik gabe. Liburu ezberdin bat beti.

Oraingoan idazlea aldendu bezala egin da, ermitaño baten modura, eguneroko traba horien gainetik hobeto ikusteko gure bizimoduaren antzerkia, eta gure existentzia eraman ditugun pausoak aztertzeko. Bizitza ertzetik ikusten duela dirudi, baina bere gogoeta distiratsuen bitartez gure munduaren gune-gunean kokatzen da, eta hor kokatzen ditu irakurleak ere. Erregimen ekonomiko hiltzaile baten erdian horren lasai bizi gaita ikusirik, idazlea harrituta eta izututa ageri da. Halere, ez du sentiberatasuna inoiz galtzen.



ANTZINATIK GAUR EGUNERA, HONDARRIBIA

Juan San Martín polifazetikoak 55 ataleko artikulua bilduma aurkeztu zuen bere argitarapenean, denak lokabeak, eta gehienak azkeneko urteotan Hondarribia aldirian argitaratuak. Argitarapen honetan jorratzen diren zenbait gai, etnografia, linguistika, historia, arte, arkitektura eta toponimiari buruzkoak dira, baina guztiak gai komun batekin, Hondarribia. Zalantzarik gabe, derrigorrezko tresna gure historia ezagutzeko.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

Bi produktu aurkezten dizkizuegu

Zure osasunarentzat onak dira.

Erleek, aurreko artikuluko batean aipatutako eztiak gain, beste bi produktu eskaintzen dizkigute; hain zuzen ere, polena eta erregina-jelea. Eztiarekin gertatzen den bezala, bi produktu horiek, balio nutritiboa izateaz gain, ahalmen terapeutikoak dituzte, printzipio aktiboak deituriko osagaiei esker.

Bai polena eta bai erregina-jelea ez dira janari soiltzat hartzen, janari-osagarriak dira. Polena ez dugu bera bakarrik erabiltzen otorduko jaki gisa, betiere, beste janari batzuekin batera erabili ohi da, janari horien eskaintza nutritiboa osatuz. Erregina-jelea, berriz, bakar-bakarrik hartu ohi da, otordutik at.

Erle langileek ekoizten duten erregina-jelearen konposizio nutritiboa polenaren oso antzekoa omen da, nahiz eta gai honetan aditu direnek erregina-jelearen konposizioa oso aldakorra dela dioten. Erregina-jelea oso goraiatua izan da azkenaldian, agian behar baino onura gehiago argudiatuz.

Adituen iritziz, gaur mintzagai ditugun polena eta erregina-jelea, biak oso produktu interesgarriak dira gure eguneroko dieta aberasteko. Hala ere, parekotasun handia dutenez, ezin esan bata bestea baino hobea denik. Beraz, gure bitamina eta gatz mineralen beharrak lasaitasunez ase nahi izanez gero, aukera paregabea eskaintzen dute biek. Noizbehinka hartzea nahikoa izaten da.

ERREGINA-JELEA

2+1

-Babesak handiagotzen ditu: umeetan, helduetan eta nagusietan.

-Gripe, katarro, angina eta abar aurre egiteko

Indar gehigarria!

Ikasle, kirolzale, langileei zuzenduta dago.

SOJA LETIZINA

Bikaina da.

Gaixotasun hauetarako balio du:

-Kolesteroaren erregulatzailea da.

-Ikasleei oroimena hobetzen die!

-Odol-zirkulazioari laguntzen dio.

-Bihotzetako gaixotasunentzat ona da.



Produktuak:

Elikagai biologikoak, frutak eta barazkiak, eguneko ogia, gozokiak, tofu-a, seitan-a, hanburgesak, oliboa, sesamo-a, ekilorea, txekor haragia, oliaskoa, txerria, arkumea, txerrikiak eta estebete begetalak. Edariak, zukuak, ardoak, caba, garagardoa. "Birkenstock" betulazeo zapatak. Umetxo biologiko eta emakume haurdunentzako produktuak. Fitoterapia, belardenda, Bach loreak, kosmetika (Logona, Sante-a eta Aloe Pura).



ETXEBIZITZETARA ERAMATEN DUGU
HENDAYA - HONDARRIBIA - IRUN

Santiago Kalea, 33 - 20280 HONDARRIBIA

☎ 943 64 14 50 ✉ txuntxu@terra.es

Ofertas Eskaintzak

. Erregina-jele : 2+1

Dohainik

.Soja Letizina 2+1

Dohainik

.Arreta pertsonala

ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

Juegos de mujer

Paris, 30ko hamarkada. Argien hiri honetako lokaletan artistak, bohemoiak eta ameslariak elkartzen dira mundua aldatzeko asmoarekin. Beraien artean, Gilda dago, zoragarri eta arduragabea den neska bat, Guy, ingeles irakasle batekin eta Mis, espainiar atzerriratutako neska batekin, etxebizitza bat banatzen ditu. Hiruen artean adiskidetasuna handia sortuko da baina mundua gerran dago. Orduan bere pasio eta idealen artean aukeratu behar dutenean, lotzen dituzten sentimenduak proban jarriko dira.



DVD

Sr. y Sra. Smith

Ezkontza bizitza eder bat igaroondoren, bost urte iraun dituen, John eta Jane Smith, aberatsak eta hirian bizi diren senar-emazteak, aspergarritasunean sartu dira. Baina, bapatean, egia agerian geratzen da: bakoitzak aurka dagoen bi elkarteko hiltzaile hilgarri, garesti eta hotzak direnak, honi buruz bakoitzak ez dakite ezer. Konturatzen direnean bata bestea hiltzeko kontratuak izan direla, bere bizitzako sekretuek topo egiten dute pasio, akzio eta dibertsioa eraginez.



DVD

La madre del novio

Mutil perfektu bat bilatzen egon ondoren, Charlottek bere amesteko gizona azkenik aurkitu duela uste du. Hau Kevin da. Honen ama ametsgaizto bat bezala dela konturatzen da. Viola telebistako aurkezle bezala kaleratu izan da eta bere semea galtzeko beldurra dauka. Orduan, amaginarreba gaizto batean bihurtzea erabakitzen du bere semearen emaztegaia aldentzeko. Bere laguntzailea Ruby da eta Charlottekin borrokatzen laguntzen dio, indartsuena nor den frogatuz.



DVD

Dear Wendy Querida Wendy

Wendy ez da neska baten izena. Wendy pistola bat da. Dick, 18 urtetako mutil batek duen pistola gustukoe-na. "Dandy" deitzen duen elkarte bateko presidentea da. Talde hau arma gustatzen zaizkien nerabeek osatzen dute. Klean ez dute inoiz arma bat ateratzen. Baina mutil beltz baten heltzearekin, kartzelako arazoak dituen, dena aldatuko da. "Dandiek" polizia batekin arazoak izango dituzte eta Estherslope, Estatu Batuetako meatze herri bat, gerra leku batean bihurtuko da.



DVD

Cinderella man. El hombre que no se dejó tumbar

Bukatuta dagoen boxealari baten bizitza oinarrituta, James L. Braddock, beste aukera izango du eta ring batera berriro joango da. Bere ahaleginak eta garaipenak herri mailako heroia bihurtuko ditu. Hala ere berriz ere fama-tua izateak bere alde on eta txarrak izan ohi ditu.



DVD

El mercader de Venecia

Shakespeare-ren obran oinarrituta, XVI mendeko Venezian kokatuta dago. Bassaniok gazteak Porcia eder- ra konkistatu nahi du. Horretarako, bere lagunari, Antonio, dirua eskatzen dio. Laguntzeko, honek Shylockekin, zekena den mailegu-eaile bat, tratua egiten du. Dirua itzultzen ez badio, bere azal ontza batekin ordaindu beharko du.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

Argazkien errebelatzea: Argazkilaritzako materialea
-Eskaintza 13x18
-Eskaintza 2x1
-Errebelatu zure argazkiak CD jasotzea
formatoan

CASIO Erloju eta iratzargailuak
Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pultsea, piercing...
Bitxiak: urrez txapatuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

Gazteentzako berriak

IKASTAROAK

IRUDI DIGITALEN TRATAMENDUA:

Noiz: Urtarrilaren 24 eta 25.

Ordua: 11:00etatik 13:00etara

IRUDI DIGITALEN TRATAMENDUA II:

Noiz: Urtarrilaren 26 eta 27.

Ordua: 11:00etatik 13:00etara



INTERNET IKASTAROAK:

Urtarrilaren 23tik Otsailaren 3ra 18:00etatik 20:00etara (20 ordu)

DIRULAGUNTZA

NORK: Kirolgi fundazioa

NORENTZAT: Banakako modalitateetan aritzen diren kirolari gipuzkoarrentzat.

ONARRIAK ETA ESKAERA ORRIAK: Kirolgi Fundazioaren bulegoetan. www.kirolgi.org webgunean.

AURKEZTEKO LEKUA: Kirolgi Fundazioa

(Kirol Etxea -Anoeta pasealekua,5. Anoeta estadioa, Donostia)

Telf. 943453498

e-mail: fundacion@kirolgi.org.

ORDUTEGIA: 9,15etatik 13,45etara eta 16,00etatik 19,00etara.

EPEA: 2006ko Urtarrilaren 2tik 31ra.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

LA HUERTA

DEL PAIS



Fruitu eta barazkiak

freskoak eta

kalitatezkoak



www.lahuertadelpais.es

NON KOKATUKO ZENUKE ERMITA HAU?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Iazko azken alean jarritako galderari ia 70 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Xabier Ribeton**. Berak esan bezala, hiriko sarreran dagoen etxe honen funtzioa, Karmeliten Komentu izatearena da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko auzo batean dagoen ermita edo basiliza bat da. Askok jakingo duzue non dagoen, bertan egondakoak izango zarete eta. Hala ere, bat baina gehiago izango dira bertatik inoiz igaro ez direnak eta beraz, non dagoen ez dakizuenak.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera otsailaren 10a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Erota*



TORRE BASERRIAREN HISTORIA



Gogoratuko duzuenetz, duela ia hiru urte, lau hondarribiarrek herriko baserri buruzko liburu bikain bat argitaratu zuten. Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elo-segi, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortégak egindako liburura jo dugu, baserri tipiko baten historia jakin ahal izateko, lehen zena eta gaur egun dena parekatzeko asmoz.

Bertan esaten denez, ugari dira Torre izeneko baserriak Euskal Herrian. Konkreteki Hondarribikoari buruz datu historiko gutxi aurkitu dira, 1638ko setioaren ondorioz hondatu ziren etxeen zerrendan aurkitu da lehen aipamena, Torrecoa izenaz.

Francisco Calatayud botikarioaren bilobak ziren 1707an baserriaren jabeak. Gero, 1811n, Juan Francisco Agirre jabetu zen baserriaz. Ondoren, bere lehengusua zen Manuel Goena Agirrek hartu zuen eta gero, bere alabak, Antzuolako Francisco Saratsola harginari saldu zion baserria, azken hau bertan bizi izan zelarik. 1936an, Manuel Saratsola zen jabea, Franciscoren semea.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047

**ARROKA
BERRI**



RESTAURANTE

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
WWW.ARROKABERRI.COM

Abendua2005

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

JAIOTZAK

2an: JOSUNE Sorzabal Calvo, Hondarribiko Jesus Maria eta Donostiako Cristinaren alaba.

4an: EKAIN Arietaaraunabeña Fernandez de Aranguiz, Barakaldoko Francisco de Borja eta Gasteizko Isabelen semea.

4an: ERROSE Amunarriz Etxebeste, Hondarribiko Gorka eta Hondarribiko Erroseren alaba.

8an: MIKEL Etxepare Birto, Irungo Asier eta Hondarribiko Liberen semea.

16an: GALDER Antxustegi-Etxarte del Egido, Donostiako Iñaki eta Donostiako Maria del Maren semea.

18an: UNAX Arrieta Ortiz, Donostiako Iñaki eta Irungo Rosaren semea.

19an: NAHIA Zamora Etxebeste, Hondarribiko Jose Maria eta Irungo Iratxeren alaba.

23an: MAIALEN Artano Iridoi, Hondarribiko Eneko eta Hondarribiko Amaiuren alaba.

23an: ARANTZAZU Galarza Romeo, Junin-go (Peru) Fredy Angel eta Hondarribiko Carlota Luciaren alaba.

23an: ENARA CIARA Gaines Añorga, Dublin-go (Irlanda) Sean eta Donostiako Maria Carmenen alaba.

27an: JULEN Benages Diaz, Donostiako Joseba Txomin eta Hondarribiko Maria Estheren semea.

28an: ASIER Sarratea Lazkanotegi, Donostiako Francisco Javier eta Hondarribiko Nagoreren semea.

30ean: IRENE Cruz Barquin, Ciudad Rodrigoko (Salamanca) Ramon Javier eta Pau-ko (Frantzia) Maria Violetaren alaba.

30ean: JULEN Balerdi Sanz, Irungo Andoni eta Donostiako Miren Karmeleren semea.

31n: MARIA Sanz Saenz de Urturi, Bartzelonako Juan Miguel eta Donostiako Eva Mariaren alaba.

EZKONTZAK

3an: DAVID Alzugarai Barral, Donostiakoa, eta **MIREN KARMELE Sorondo Hernandez**, Hondarribikoa

7an: IÑAKI Amezaga Sein, Irungoa, eta **MARIA BEGOÑA Oporto Otegi**, Hondarribikoa.

10an: NICASIO Ezeiza Unsain, Hondarribikoa, eta **MARIA TERESA Ruiz de Galarreta Lopez de Zubiria**, Ameskoabarren-koa (Nafarroa).

10an: SAMUEL LORENZO Kanpandegi Iturbe, Donostiakoa, eta **ESTIBALIZ Arretxe Iridoi**, Irungoa

17an: EDUARDO Piedrola Nadal, Carabanchel bajokoa (Madril), eta **NEREA Uranga Royo**, Errenteriakoa

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



HERIOTZAK

1ean: EMETERIO Oianguren Perez, Hondarribi-
koa, 89 urte, Harategi kalean

3an: CARMEN Echeverria Picavea, Irunkoa, 85
urte, Santa Engrazia kalean

6an: JOSEFA Mayoz Peña, Getariakoa, 92 urte,
San Gabriel egoitzan.

11an: BENITO Diez Garrido, Zalduendokoa (Bur-
gos), 82 urte, Zubieta kalean

21ean: JOSEFINA Marin Navarro, Marsellakoa
(Frantzia), 92 urte, San Gabriel egoitzan.

23an: JOSEFA Bandres Lekuona, Zizurkilgoa, 91
urte, Marisantzenea kalean

29an: FRANCISCO Ezeiza Zunzundegi, Honda-
rribikoa, 82 urte, Madalen kalean

ABENDUKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperatura gorena: 18,3° C, hilaren 4an.
Temperatura beheena: -2,5° C, hilaren 24an.
Bataz besteko tenperatura: 9,8° C.
Bataz besteko hezetasuna: % 79
Euri-litroen kopurua: 191,6 litro.
Egun euritsuena: hilaren 5ean 43,9 litro.
Euri indartsuen unea: hilaren 6ko 6,35etan,
30,6 litro.
Egun euritsuak: 13 egun.
Elur egunak: egun 1
Kazkabar egunak 2 egun
Ekaitz egunak 2 egun
Behe-lainotsu egunak: 4 egun
Ihintz egunak: 2 egun
Haizea >50 Km/O.7 egun
Tximist-trumoi egunak: egun 1
Bataz besteko presioa: 1020,7 milibar
Presio guztiz gorena: 1034,7 milibar, hilaren
10an
Presio guztiz beheena: 992,5 milibar, hilaren
2an
Ordu eguzkitsuen kopurua: 71,2 ordu.

ABENDUKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 409 euskaraz, 1060
gaztelaniaz eta 77 bestelakoak. Guztira: 1546
liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 39 euskaraz, 139
gaztelaniaz eta 45 bestelakoak. Guztira: 223

liburu.

Bazkide berriak: 26 gizon eta 51 emakume.
Horietatik 48 heldu eta 29 haur. Guztira 77.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: Betiko ipuinak.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ, F.- Las aventuras de
Mortadelo y Filemón.

Helduak:

Euskeraz: ARISTI, Pako.- Urregilearen orduak.

Gaztelaniaz: RUIZ ZAFON, Carlos.- La sombra
del viento.

ARRANTZALE KOFRANDIAN ABENDUAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK:

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 18.053 kilo.

Makarela (*Scomber japonicus*): 170 kilo.

Dorada (*Sparus aurata*): 140 kilo

Boga (*Boops boops*): 2.459 kilo

Sardina (*Sardina pilchardus*): 2.272 kilo


Bestelakoak: 570 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK ABENDUAN

Altak: Jaiotzak: 15, eta kanpotik etorriak: 57

Bajak: Hildakoak: 6, eta herritik joanak: 48

Biztanle kopuru orokorra: 16.227 bizilagun.



FUENTERRABLA. — Calle de Santiago (Marina).

ND. Fot.